

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****2025. urteko Santa Eufemia Azokako taloen txosnak jartzeko baimenak enkante bidez esleitzea.**

2025eko uztailaren 24ko 2025/4714 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez, 2025. urteko Santa Eufemia azokako taloen txosnak jartzeko baimenak enkante bidez esleitzeko administrazio-baldintza zehatzen eta teknikoen orriak eta eranskinak onartzea eta deialdia zabaltzea onartu dira.

Xedea

Santa Eufemia azokako taloen bi txosna jartzeko baimena esleitzea.

Lizitazio prezioa

Enkante publiko bidez, gutxieneko lizitazio prezioa 921,67 eurokoa izango da.

Adjudikazio forma

Baimen hauek enkante publiko bidez esleituko dira eta eskaintza ekonomikorik onuragarrienak hartuko dira kontuan.

Iraupena

Egun bat, 2025eko irailaren 16an.

Oinarriak aztertzeke lekua eta epea

Administrazio klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiria espedientea osatzen duten gainerako agiriekin batera, udal honetako Kultura eta Hezkuntza Sailean egongo dira ikusgai, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Eta Bermeoko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira eta kontsultatu ahal izango dira, helbide honetan: <http://bermeo.eus/1470.html>

Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea

Proposamenak 10 eguneko epean (naturalak) aurkeztu beharko dira, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, modu hauetako edozeinetan:

- Bermeoko Udaleko kontratatzailearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>
- BERHAZ Herriarrentzako Laguntza Bulegoa, Ertzilla kalea, 6-8 48370 Bermeo.
- Posta-bulegoetan, erregelamendu bidez araututako moduan.

Esleipena

Udaleko kontratazio-organoak esleipena egingo du eta akta Bermeoko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Bermeon, 2025eko uztailaren 28an.—Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly